

Elkarrekin bizitzen ikasteko garaia

Maidar Iantzi
Goienetxe

Denbora luzea da egun batetik bertzera etxean sartu ginenetik. Ordutik, bakoitza bere historia bizitzen ari da baina beldurra eta harreman mutilatuak konpartitzen ditugu. Nire kasuan, gauza pila bat gertatu diren sententzioa dut eta musukoarekin izandako erditzea izanen litzateke momentu gorena. Nire iraultza berezia, jendartearen transformazioaren barrenean. Maskarak estalitako garrasiak eta lau besok baino besarkatzen ez duten umea, garai hauen irudi.

Egun sargori haien ondoren hartzairen negua oroitzen dut, elur eta guzti. Zaborra ateratzea bera irteera atsegina

zen. Herriko denda batean egindako lehen erosketak eta solasaldiak poz handia eman zidaten. Paseoan jende bila ibiltzen nintzen eta haurraren aitzakian harreman berriak sortu ziren.

Orain ere kalean bertzeekin egotean piztu egiten naizela sentitzen dut. Ez dakit dendariak zer pentsatuko duten erosketa ttiki baten truke terapia handia egiten dudanean. Etxean eta etxetik ari naiz lanean eta hagitz gustura. Familiak eta lantegiak kontziliazioan laguntzen didate, baita izurriteak ekarritako lan egiteko modu berri honek ere. Baina batzuetan mundua pantailaren bertzaldetik ikustera ohitzen ari naizela iruditzen zait.

Bitartean, semea handitzen ari da eta oraindik aunitz dira ezagutzen ez duten senide eta lagunak. Oraindik atzera egiten dut aulkitxoarekin norbait eskua luzatzera doala ikusten badut. Baina eskuak ez ditut garbituaren garbituaz gorri, hasieran bezala. Besteak beste, dena ukitzen duen haurrari esker. Badator uda, elkarrekin bizitzen ikasteko garaia. Haurrak Ere Bai familien sareak dioen bezala, tratatu ona, errespetua eta bizi-premiak aintzat hartuta, jendarte osasuntsu baterantz joateko. Osasuna «osoa» baita: fisikoa, mentala, emozionala eta jendartearen ongizatea. Eta elkarrenganako beldurra horren aurka doa. •

Geratzeko etorri dira

Xabier Mikel
Errekondo

Maskara geratzeko etorri da. Makillajea aldrebesten digu, arnasetan bero-bero masail xaloak erre, marrubizko ezpain ertzak pupaz bete, betaurrekoak lurrundu pazientzia akitzeraino eta aurpegi ederrak moztortzen ezaguna ez ezagutzeraino.

Koronabirusa geratzeko etorri da. Berroa dago giroa, haserrea da nagusi, ez da giro. Edonor edonon gaitezke izan kalte-tu edo hilotz, bereziki pertsona zaurgarrienak.

Kalteak ikusten ditugu, baina birus madarikatua ikusezin zaigu, haren aurpegia zein kolorea, eta ezezagun jatorria

zein zergatia. Baina bada ageriko ikasgaia bederen, agintariak edozein arau eta zigor ezarri arren birusa bere nahieran ibili da, olatuz olatu, eta hura gertuko duen irtenbide bakarra txertoa da. Txertoa ere geratzeko etorri da, birusaren itzaletik ibiltzeko, ze birusa garaituko du agian, baina ez du guztiz ezabatuko. Ulertzekoa... aberastasun neurrigabea jomuga, farmazeutikek birusa bizirik nahi dute.

Ez naiz ezeren ez inoren defentsa itsu-itsuan egin zale baina, ene ikasketak zientziatakoak izaki, aitortzen dut nire sinesmen eremua zientifikoki demotragarri diren mugetan amaitzen dela.

Baina zientzialariak interes politiko eta ekonomikoen entsaladan gurutziltzatutak izango dira osasuna ez den beste interesen gainetik jarri ezean.

Nola liteke, ordea, irtenbide zientifikoa hain bateratua izanik, gobernu bakoitzak hartu neurrietan hainbesteko arrakala egotea? Agian osasuna ez dutelako lehentasun? Agian goi politikagintzan ezer ez delako zintzoa, ez argia, ez garbia? Agian agintariak batzokiko zutabeak loditzea dutelako xede, bidean edozer ezabatu eta edonor kriminalizatu behar badute ere?

Argi dago, agintarien espezia geratzeko etorri da. •